ASTEKARIA - 2010eko maiatzaren 28an - XIV. urtea - Usurbil, 409. zenbakia

www.noaua.com

# Noaua!!



Egin gidabaimena euskaraz, merkeago aterako zaizu




Xabier Olano eta Garazi Iturralde

## Munduko Kayak Txapelketan onenen artean


AZKONOBIETA
LAN FORESTALAK
sasi garbiketa, hesi lanak, landatzea, inausketa, mugarriztatzea, mozketak, eta mendiko edozein lan mota.
656 720 607
azkonobieta@hotmail.com


FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA
munalurra 8, Usurbil
ASEGURUA DUTEN FAMILIENTZAT:
Deiguzue ZUZENEAN, zerbitzua ematen hasteko denbora murriztuz, eta gure ehorztetxea izapide guztietaz arduratuz eta bonifikazio berezi bat zuen polizan
ASEGURU GUZTIAK
BEILATOKI-TANATORIO GUZTIAK
ERRAUSKETAK
OSPITALETAN ERE ZERBITZUA
943 36 21 63
660 388 652 - 608 16 77 92
info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es


USURBILGO LANBIDE ESKOLA
943 36 46 00
www.lhusurbil.com
Erdi eta Goi mailako zikloak A eta D Ereduak
Administratiboa
Elektrizitate-elektronika
Fabrikazio mekanikoa
Ura eta energia
Produkzio zerbitzu eta manten.
Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.
AURREMATRIKULA maiatzaren 31tik ekainaren 11ra

## Albistea iruditan !!

# Toki gehiagorik ez da geratzen Udajolasen

Uztailean, 100 gaztetxo bilduko dira Udajolasen, urtero antolatzen den udaleku irekian. Maiatzaren 19an arratsaldeko 17:00etan ireki zen izena emateko epea. Ordu erdi lehenago, ilara luzea zegoen NOAUA!ren atarian. Bigarren egunerako, 100 tokiak beteta zeuden.

Zubietan ere Udako Txokoak antolatzen dira, baina bi hilabetez, uztailean eta abuztuan. Hala ere Zubietan izen-ematea maiatzaren 21ean bukatu zen.

Aginagan aldiz, irekita jarraitzen du Udako Txokoetan izena emateko epeak. Uztailean egongo da martxan udaleku irekia, goizez, eta kuota 100 eurokoa izango da. Izena emateko deitu zenbaki hauetara: Manuel (600 484 948), Dolo (676 163 506).



ILARA LUZEA OSATU ZEN IZENA EMATEKO LEHEN EGUNEAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

JOSEBA TAPIA SUTEGIN ........ 5. OR.

KRONISTAK KALEJIRAN ........ 6. OR.

SAGARDO EGUNA, IRUDITAN ........ 8. OR.

GIDABAIMENA EUSKARAZ ........ 10. OR.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARAZ

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.ESK 943372937 · 659602789



UGAITZ AGIRRE

# Tango bat penak kitatzeko (I)

Argia joan zen agurrik esan gabe.

Mendien magaletatik behera erortzen zen olatu ikaragarri baten antzera maindire ilun bat. Ilargi amandreak bere betiko soineko beltza jantzi zuen puntu hori distiratsuekin apaindua. Inoiz baino ederrago azaldu zela zioten egunkariek, prentsa arrosak ez zuen beste mintzagairik jendea entretenitzeko.

Goizerako hodeiak iparretik sartuko zirela iragarri zuten eguraldiaren pronostikariek eta sekulako euri zaparradak egongo zirela lurralde guztian. Baina horrek ez zuen kezkatzen gazte jendea. Berdin-berdin egingo zuten parranda eta goizaldean erretiratuko ziren kafetegi batean bapo gosaldu ondoren.

Irratia piztu eta betiko erretentzioen zarata hotsak entzuten ditut ogi xigortua kafesnetan bustitzen dudalarik. Bizarra mozteko gogorik ez dut eta lantokira joan beharrak nire buruaren etsai bihurtzen nau une batez. Citroen zaharra arrankatu eta errepide bazterreko marra zuriari jarraituz helmuga guztietara iristen naiz.

Gauean telebista piztu dut eta egunean zehar zer gertatu den jakin nahiak lozorrora gonbidatzen nau. Mesanotxeko argia itzali, laztanari muxu bat eman masailean eta maindirearekin tapatzen dut gorputza begiak itxi bitartean.

Negar hotsak entzuten ditut. Euria agian?

…

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - **Ugaitz Agirre** - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika!!

# Presoen eskubideen aldeko astea

Estatu frantseseko eta espainoleko espetxeetan sakabanaturik dituzten euskal presoek pairatzen duten egoera maiz salatu da. Espetxe-politika kalkulatuak gero eta urrats krudelagoak egiten ari da. Ehunka kilometrotara eta dozenaka espetxeetan sakabanatuak mantentzeaz gain, barruko bizi-baldintzak eta presioak okerrera egin dute, nabarmen.

Laborategi errepresibo horretan, bi estatuen irudimenak ez du mugarik. Muturrerainoko egoera horiek areagotzeko beti asmatzen dute zerbait berria, bai gure senideak, bai gu geu ere, zigortzeko. Azkenekotako "asmakizunak" familiarekin eta lagunekin komunikazioa eta harremana eragozteko, aurrez-aurreko bisitak trabatzea izan da. Horretarako katxeo umiliagarriak inposatzen zaizkie bisitariei zenbait espetxeetan eta, onartzen ez direnez, presoak bisitarik gabe geratzen dira. Gure herrian Olatz Lasagabasterrek eta Ramon Uribek hainbat galdu dituzte eta hilabeteak dira Xabier Aranburuk ez duela aurrez aurrekorik izan.

Gainera, azken asteotan esperimentu berriak egiten ari dira, espetxe aldaketa programatuekin betiko helburua: euren arteko zatiketa bilatu nahian. Helburu horrekin, isolamendua, bakartzea, xantaia eta etengabeko jazarpena dituzte "tresna preziatuenak".

Urteak daramagu gehiegikeria hauek guztiak salatzen; gure senideen eskubideak erreklamatzen; eskubide horien bermatzaile izan beharko luketeen agintariak interpelatzen; gizarteari laguntza eta elkartasuna eskatzen.

Zoritxarrez, askotan, herrian bertan, askok egoera honen berri ez duelakoan gaude edo, "zerbait entzun" dutenak ere topatzen ditugu. Egun, zenbat herritar preso dauzkagun eta non eta nola dauden zehazki ez dakienik ere bada.

Horregatik, aste informatibo-erreibindikatiboa antolatu dugu, Kantu-jira taldekoen eta Bertso-eskolakoen laguntzarekin, inork ez beza "ez nekien" esaterik izan.

**Maiatzak 28 ostirala**

23.00etan: Kontzertuak Askatasuna plazan (Taldeak: Hotzikara, Despervicio, Aurka kontra eta The Zepo).

**Maiatzak 29 larunbata**

18.15ean: Ekitaldia Sutegin.

19.00etan: Kalejira (Kantu-jira, Joxe Agirre, Peña eta Ibai Esoain bertsolariak, Kuxkuxtu txaranga).

21.00etan: Bertso-afaria Olarrondon. (Marisa gurekin).

**Ekainak 2 asteazkena**

19.30ean Sutegin: Bideoa + "Burdinen arteko herria" liburuaren aurkezpena.

**Ekainak 5 larunbata**

Herrera eta Alcazarreko espetxeetara martxa. (Autobusa goizeko 1.30etan Hernaniko Atsegindegitik. Izena-emateko, Txiribogan).

**Usurbilen Nahi Ditugu elkartea**

** Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)*

# Joseba Tapiak
## ikuskizun berria aurkeztuko du ostiral honetan

**Denboran atzera egitea proposatzen du Joseba Tapiak eta bere musikari taldeak, bakarkako "Eta tira eta tunba" lan berrienean. XIX. mende amaierako hainbat kantu berreskuratu ditu azken lan honetarako. II. Karlistada garaiko kantutegia hain zuzen. Liberal eta karlisten bertsoak musikatu ditu.**

Beraz, bi bandoetako kantuak entzun ahal izango dira, NOAUA! Kultur Elkarteak antolatuta, maiatzaren 28rako antolatu duen emanaldian. Tapiak lan berriena ostiral gauean aurkeztuko du, 22:30etan Sutegiko auditorioan.


KARLISTEN GARAIKO KANTUTEGIA BERRESKURATU DU JOSEBA TAPIAK.

### Sarrerak, dagoeneko salgai

Tapia ez da bakarrik igoko auditorioko oholtza gainera. Soinu txikiaz gain, haize sekzio ederraz eta perkusioaz lagunduta aurkeztuko dituzte lan berriko kantuak. Alboan izango ditu honako taldekide hauek: Filipe Aldaco (tronpeta), Alain Martineau (Saxoa), Mintxo Garaikoetxea (bonbardinoa), Ramontxo Vega (tuba) eta Jokin Irungarai (jazpana). Bakarka prestatu duen bosgarren lana du Tapiak, "Zakurraren biolina" zigilupean argitaratuko duena.

Sarrerak salgai daude jada, aldez aurretik 6 eurotan Txiribogan eta NOAUA!ko egoitzan (bazkideek 5 eurotan eskura dezakete, baina aldez aurretik eta soilik NOAUA!n). Egunean bertan, 8 euroren truke.

# Santixabeletako diseinu zein bertso paper lehiaketak

### Santixabeletako Egitarauaren diseinu lehiaketa

**Nori zuzendua:** Norbanako edo taldeak aurkez daitezke. Taldea aurkezten bada, taldekide bat izendatuko da lanaren arduradun.

**Lana nola egin:** Egitarauaren testua Udaleko Kultura, Euskara eta Gazteria Zerbitzuan jaso behar da, eta testu horretan oinarrituta egingo da diseinua.

-Jaietako egitaraua euskaraz egingo da eta gaztelaniazko laburpena egitarauaren amaieran jarriko da. Letra tamainaren aldetik, euskarari lehentasuna emango zaio.

-Diseinuak egitarauaren orri guztiak hartu behar ditu bere baitan.

-Formatu artistiko guztiak onartuko dira: pintura, akuarela, collagea, argazkiak, digitala...

-Lanaren neurria librea izango da.

-Lanetan ez da egilearen inolako seinalerik agertuko. Datu pertsonalak (izen-abizenak, helbidea eta telefonozenbakia) gutunazal itxi batean adieraziko dira. Gutunazalean, izengoiti bat jarriko da, eta izengoiti hori bera agertuko da aurkeztutako lanaren atzealdean.

**Lanak aurkezteko epea:** ekainaren 7ra arte, Udaleko Kultura, Euskara eta Gazteria Zerbitzuan.

**Epaimahaia:** Jai Batzordea.

**Saria:** 500 euro irabazlearentzat.

**Oharra:** Saria eman gabe geratu ahal izango da, baldin eta aurkeztutako lanek ez badute behar besteko kalitaterik.

**Argibide gehiago:** 943 371 999.

### Santixabeletako Bertsopaper Lehiaketa

Bete behar dituen baldintzak:

- Usurbildarra izatea.
- Gai librean idaztea.
- Lanak, ekainaren 29a baino lehen Udaletxera eman edo postaz bidali: XXXIV. Bertsopaper Lehiaketa, Joxe Martin Sagardia Enparantza, 20170 Usurbil.


JAIETAKO EGITARAUA OSATZEKO DISEINU LEHIAKETA MARTXAN DA.

- Lanek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute. Gutxienez 8 bertso; gehienez 10 bertso.
- Sariak: lehenak, 200 euro eta txapela. Bigarrenak, 150 euro. Hirugarrenak, 100 euro.
- Lanak egilea nor den adieraz dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz. Lanarekin batera kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak ipini.

-Erabakia jaietako bertso saioan emango da aditzera, uztailaren 3an.

ATXEGALDE UNAI AIZPURUA

# Astelehena, 7:00 a.m.



Eguneko lehen eguzki izpiek goizeko hoztasuna epeltzen hasi dute. Elkarrizketa batek goizeko isilunea eten du:

-Egunon ene dama, a ze eguna atzokoa ezta? Festa paregabea inondik inora. Giro ona, jende asko, alaitasuna eta festa giroa txoko guztietan.

-Bai motel, egia. Bizkarra txiki txiki eginda dut, zenbat jende handik hara, hemendik hona, eskerrak noizbehinka sagardo pittin batek freskatzen zidan. Hala ere gure betiko lagun zaharrak ere faltan bota nituen. 29 urte gurekin izan direnek ezin izan dute etorri, ezin beraien mama gozoa dastatu. Etxeko kontuak ote? Hala ere, lagun berri ugari egin ditugu eta baita ondo pasatu ere.

-Egia. Non ote ziren herriko gure lagunak? Huts egin gabe ibili ostean ia 29 urtez, atzo arrastorik ez? Etxekoek ez omen diete etortzen utzi, hala entzun nuen atzo. Zigorra ote?

-Ez dakit ba, iraultza garaiak omen datozela esan dute. Usadio zaharren berritzea dela diote.

-Aldaketa garaia? Berritzea? 29 urtez herritarrek sorturiko festa eta herritarrentzat eginikoa izan da eta? Herritarren sakrifizioa, herritarren gozamena. Ehunka lagun ilusioz eta gogoz lanean batera, helburu berbera izanik. Hori da aldaketa. Hori da aldaketa sakona. Hori da iraultza. Gaur egun hobe joango ginateke horrelako zahar-berritze planarekin.



-Tira, ea hurrengo urtean berriz ere herriko sagardoarekin freskatzen dizkiguten bazterrak. Eta 30 urteak ere jai giroz eta denok elkarrekin igarotzen ditugun, garai zaharrak oroituz!

Halaxe entzun du *sopladora* eskuan zuela, udaletxeko brigadako langile batek frontoi inguruan pilotalekuaren eta Dema Plazaren arteko elkarrizketa.

SANTUENEA IÑAKI LARRAÑAGA

# Sagardo Egunean, lagun



Kaixo auzotarrak! Igande goiza da, 9:30 inguruan, eguzkiak bete-betean jotzen du lehioan, eta seme-alabak gosaltzen daude. Berandu samar gabiltza, izan ere atzo kosta egin zitzagun etxean sartzea, eta hori goiz atera ginela, baina badakizue ze eguzki eta bero "monoa" genuen, ba aprobetxatu egin behar. Lagun baten aholkua jarraituz, Sagardo Egunera joan baino lehen idatziko dut kronika hau, ez baitakit eguna nola joango den. Jende asko etorriko dela sagardoa edatera, hori seguru, eguzkiak horretarako asko laguntzen du, ea jendeak buru pixka batekin edaten duen, ikusiko dugu. Kontua da Sagardo Egunaren aitzakiarekin, kanpoan bizi diren auzotarrak herrira gerturatzen zaizkigula, eta eskertzekoa da, ze egun berezi honetan, sekula agurtzen ez duguna ere lagun bat dirudi. Agian ez da oso naturala izango, baina elkarri mokoka ibiltzen aritzea baino hobe ezta? Beno auzoko baratzak ere eskertuko dute eguzkiaren lana, ze aurreko batean izan genuen kazkabarrak min dezente egingo zuen, eta orain berriz badirudi udan gaudela, hau da hau eromena. Frontoi berriaren lanak ere hastear omen dira, a ze aldaketa datorkigun, eta San Juanak ere gainean, eta Santixabelak eta... Tartean tartean lana ere, bai, ze lanik gabe festa gutxi.

AGINAGA ANE MANZISIDOR

# Jaiak prestatzeko bilera



Kaixo guztioi!!! Dagoeneko Sagardo Eguna ere igaro zaigu. Giro paregabean igaro genuen gainera! Uda ere, geroz eta gertuago daukagun honetan, herriko jaiak ere geroz eta gertuago ditugu!!! Konturatzerako San Juanak iritsiko zaizkigu eta gero gainontzeko guztiak jarraian. San Praixku jaietarako oraindik ere dezente falta dela ematen badu ere, iritsi da garaia jaien antolakuntzarekin hasteko. Hau dela eta, ekainak 3, ostegunean, izango da hurrengo bilera Aginagako soziedadean. Bilera iluntzeko 21:00etan izango da. Hemendik bilera hauetan parte hartzeko deia luzatu nahiko nizueke guztiei!!! Zenbat eta jende gehiago elkartu, errazagoa izango baitzaigu jaiak antolatzea. Besterik gabe, gonbita luzatuta uzten dizuet!!!

Bestalde, aurreko batean frontoian nenbilela arratsalde pasa, guraso bat ondora etorri eta zera esan zidan. Atez atekoa dela eta, zakarrontziak kendu zituztela bai frontoi ondotik eta baita parkeko plazatxo hortatik ere. Frontoiaren ondoan jarri dute zakarrontzi bat baina parkean zegoena falta da. Arratsaldeetan haur ugari elkartzen dira bertan eta zakarrontzi bat jartzea ondo egongo litzatekeela iruditzen zaigu. Besterik gabe, hurrengo bat arte!!

*Aurrerantzean, Kalejiran ataleko 8 kronikak txandaka argitaratuko ditugu. Txokoalde eta Urdaiagako kronikak hurrengo batean bilduko ditugu.*

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

# Ereiten... auzolanean



*Ereiten ez duenak ez beza uztarik espero* zioen batek eta nik, bada ezpada, erein egin dut. Negua utzi berri samarra badugu ere, ostera bueltan etorriko da eta hotzak iristen direnerako babarrunak bilduak izatea ez da txarra izango.

Baina, ereiten aritu bagara ere, ez dugu nolanahi erein; auzolanean aritu gara! Eta horrek du xarma niretzat. Eguna goizeko bederatzi t'erdietarako amaituko zen beldurrez, auzoek bederatzietarako egin zuten zita (larunbata izaki, ohean geratzea ere ez zen aukera txarra baina…). Aurretik ederki prestatua zegoen sorora hurbildu (ai ene, a ze gerriko mina dena amaitzerako, nire barrenean) eta hitz gutxirekin elkar antolatu genuen; batzuk lerroak soka bidez irudikatu eta atxurrarekin zuloak egiten. Beste batzuk zulo bakoitzean hiru arto ale botatzen. Hurrenak zulo berdinean pare bat babarrun ale gehitzen eta azkenak berriz zuloak tapatzen. Han hasi ginen, tipi-tapa zulatzen, ereiten eta tapatzen.

Eguzkipean izerditzen hasiak ginen horretan, burura etorri zitzaidan nola amonak kontatzen zuen garai batean auzolana sekulako festa izaten zela; neska eta mutil, zahar eta gazte, heldu eta adineko, denak bildu eta izaten omen zen parada berriketarako, kanturako eta zenbaitentzat kortejatzeko ere!! Kuriosoa bezain aberatsa. Sarritan pentsatu ohi dugu egun gure aintzinakoek baino gehiago dakigula baina ene uste apalean, haiengandik gehiago ikasi izan bagenu, eta ikasitakoa aplikatu, ziur kontua beste bat izango zela. Ondo izan eta hurrengorarte.



KALEBERRI

IRATI PORTU

# Sagardo Eguna



Ez da alferrik esaten Sagardo Eguna usurbildarrontzat urteko egunik berezi eta garrantzitsuena dela. Egongo da gustatzen ez zaionen bat edo beste, baina adin eta izaera desberdineko herritar asko biltzen dira festa honen inguruan. Nahikoa da goiz goizetik plazara gerturatzen diren herritarren aurpegietara begiratzea denok ere nahikoa urduri eta irrikaz gaudela ohartzeko. Aurtengoa oso berezia eta polita izan da. Eguraldia primerakoa, sagardoa inoizko onena eta giro ederra. Egia da igandean plazara bertaratu ziren sagardotegietako postuak azken urteetan gerturatzen zirenak baina gutxiago izan direla. Ez da nire asmoa kronika honetan Gipuzkoako Sagardogile Elkartea edota Usurbilgo Sagardo Egunaren antolatzaileen artean gertaturikoa berritzea edota baten edo bestearen alde jartzea. Nire asmoa antolatzaileak zoriontzea da. Eskerrak eman nahi dizkiet ez eguneko lanagatik soilik, baita hilabeteak lehenago egindako lan guztiagatik ere. Eskerrak eman nahi dizkiet izan dituzten boikot saiakeren aurrean aurrera egin dutelako. Eta batez ere, eskerrak eman nahi dizkiet beraien lanagatik izan ez balitz Usurbilgo Sagardo Eguna ez zelako igandekoaren modukoa izango, herrikoia eta ederra. Zorionak eta eskerrik asko.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

# Hala ere



Aurtengoa ikasturte zaila izaten ari da Zubietako eskola txikiko gurasoentzat. Zubietako eskolaren eskaintza txikituz eskola bera desagertzeko bidean jarri du Eusko Jaurlaritzak eta horren aurrean gurasoek jo eta ke dihardute instituzioetara joaten, harremanak lantzen, txostenak egiten, medioetarako gutunak idazten, komunikabideei prentsaurrekoak eta elkarrizketak ematen, hamaika bilera egiten...

Eta, hala ere, buruhausteak buruhauste eta krisiak krisi, gai izan dira kultur aste txukuna antolatu eta ume zein gurasoei egitarau erakargarria eskaintzeko. Denetariko ekitaldiak izan ditugu joan den astean: umeen musika eta dantza emanaldia, antzerkia, puzgarriak, hitzaldiak, haur jolas kooperatiboak, buruhandiak, bizikleta-txangoa, bazkaria...

Ume eta gurasoen arteko giroa mundiala izan da eta, eguzkia lagun, pasa den larunbat arratsaldez urtean zehar pilatutako tentsio guztiak askatu eta ur-bataila batekin bukatu zuten aste arrakastatsua.

Izan ere, badakigu zein den leloa: borroka bai baina jaiak ere bai.

# Sagardo Egunarekin pozik dira antolatzaileak

**Eguraldi ona, sagardo hobea, parte hartzea bezala… Balorazio ezin hobea egin dute antolatzaileek joan den igandeko Sagardo Egunaren inguruan. Aldaketak izan dira aurtengoan, baina agerian geratu denez herritarren artean harrera ezin hobea izan dute.**



SAGARDO EGUNEKO ARGAZKIAK ETA BIDEOAK, NOAUA.COM WEBGUNEAN IKUSGAI.

Erreferentzia moduan saldutako edalontzi kopurua aintzakotzat hartuta, parte hartzea ezin hobea izan dela adierazi dute antolakuntzatik. “Primerako eguna izan zen. Jendearen erantzuna ona izan da, beste urteetan adina jende ibili da”, zehaztu dute. Sagardoa ere gustura edan zuten herritarrek. “Sagardoaren kalitatea beste urteetan baino hobea izan da, herritarren iritzien arabera”, adierazi dute antolatzaileek.

## Esker berezia baserritarrei

Gipuzkoako Sagardogile Elkarteko kide diren sagardogile gehienak ez ziren igandeko festan egon. Haien ordez aldiz, eta antolakuntza taldeak azken hilabeteotan burutu duen lanari esker, bertako zein kanpoko ekoizle ugari etorri dira sagardo festara. Horregatik antolatzaileek esker hitzak baino ez dituzte haientzat. “Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete bai bezperan eta baita Sagardo Egunean bertan ere laguntzen aritu diren guztiei. Esker berezia baserritarrei, haien etxeko sagardoa denoi dastatzeko aukera emateagatik”, adierazi dute.

Txoko desberdinetatik etorritako ekoizleek postua izan zuten. Baina izan zen, gonbidatu arren, azken unean etorri ez zenik ere.

Sagardo Eguneko antolatzaileek zer gertatu den argitu nahi dute. “Pena bakarra dugu. Igandean gurekin Asturiasko lau sagardotegi ere izatekoak genituen, baina Gipuzkoatik azken unean ez etortzeko gonbidapena jaso ondoren, azkenean ez etortzea erabaki zuten”, zehaztu dute.

## Mariskada zozketa

Sagardo Egunean, presoen eskubideen aldeko errifan 0319 izan zen saritua. Irabazleak mariskada eder bat du zain.

## Hamaika telebistakoak Sagardo Egunean

Hamaika telebista jada ikusi daiteke Usurbilen. Hamaika euskara hutseko telebista da. Momentuz, Bilboko programazioa ikusten da soilik Euskaltel bidez 911. katean eta LTD bidez 23. katean.



XABIER MIKEL ERREKONDO ALKATEA, HAMAIKA TELEBISTAKOEKIN HIZKETAN.

## Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea egin zen eguerdian

Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak deituta, euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea egin zen eguerdi partean. Eskualde mailako deialdia izan zen eta jende ugarik hartu zuen parte.




MIKEL LABOA PLAZAN EGIN ZEN ELKARRETARATZEA.

Atez ateko
zalantzak argitzen

Zer egin tetrabrikekin?

Kartoizkoak iruditu arren, tetrabrikak ez doaz paper eta kartoiarekin, ontzi arinekin baizik.

Bidali zure galdera helbide honetara:
atezate@usurbil.net
Galde-erantzun guztiak webgunean:
www.usurbil.net/atezate

Usurbilgo Udala
Usurbil osasuna atez ate

## Zumarte eta Ziortzarena izan zen irekiera ekitaldiko ohorea



25 urte bete dituzte Zumarte Musika Eskolak eta Ziortza aisialdi taldeak.

## Sagardo freskoa edateko modukoa izan zen eguna



Bisitariak, sagardo freskoa edateko egarriz iritsi ziren Sagardo Egunean.

## Iker Muguruzak irabazi zuen Sagardo Botatzaileen Lehiaketa



Ezkerrean da aurtengo irabazlea. Bigarren *Tola* izan zen (erdikoa), hirugarren Urko Manterola.



# Gidabaimena euskaraz, merkeago

## Gidabaimenaren parte teorikoa musu-truk Buruntzaldeko auto-eskoletan

**Ikasturtea bukatzear dago eta uda bidean. Garai honetan hasten dira 18 urteko gazteak gidabaimena ateratzeko tramiteekin. Hori dela eta, Buruntzaldeko Udalek, "Semaforo berdea!! Gidabaimena euskaraz" ekimenaren bitartez, gidabaimena euskaraz ateratzen dutenei parte teorikoa doan lortzeko aukera eskaini nahi diete, auto-eskola bakoitzeko sari bat zozketatuz, 11 guztira.**

Ohiko metodoari jarraikiz, hau da, egunean bi edo hiru ordu eginez, -liburua irakurri, klase teorikoa entzun eta galdera sortak erantzun-, ikasleek hamabost egun behar izaten dute, gutxienez, azterketa teorikoa prestatzeko.

### Ikasteko baliabideak

Gidabaimena era erakargarriagoan ateratzeko helburuarekin, teknologia berrien erabilera ari da hedatzen auto-eskoletara. Horietako askotan ikasleek ordenagailuak erabiltzen dituzte testak egiteko, eta ematen duten erantzuna okerra bada, azalpenak jasotzeko.

Gainera, hainbat auto-eskolatan etxean praktikatzen jarraitzeko aukera ere eskaintzen zaie ikasleei, Internet edo CD bereziak erabiliz.

### Azterketa teorikoa

Azterketa teorikoa 30 galderez dago osatuta eta ez da 3 akats baino gehiago egitea onartzen. Hala eta guztiz ere, oso emaitza onak izaten direla adierazi digute: "Ehuneko handia da lehenengo aukeran azterketa teorikoa gainditzen dutenak. Izan ere, ongi prestatuak dauden arte, ez dira azterketara aurkezten".

### Azterketa praktikoa

Azterketa teorikoaren ostean praktikoa dator. Praktikak auto-eskolarekin egiten diren bitartean ez da arazo berezirik ikusten, baina azterketa eguna heltzean, teorikoan baino zailtasun gehiagorekin egiten dute topo ikasleek; urduritasuna, azterketzailearen ezaugarriak, hizkera teknikoa...

### Parte teoriko bat musu-truk

Aurten, Buruntzaldeko Udalek "Semaforo berdea!! Gidabaimena euskaraz" ekimena jarri dute abian, eta parte hartzen duten Buruntzaldeko 11 auto-eskoletako bakoitzean, gidabaimenaren parte teoriko baten kostua zozketatuko dute, 400 eurotako mugarekin, gidabaimena euskaraz ateratzen duten ikasleen artean. Saria irabazteko aukera izateko lehendabiziko baldintza gidabaimena euskaraz ateratzea da, eta bigarrena, esku-orrian agertzen diren datuak betetzea zozketan parte hartu ahal izateko.

Esku-orri hau 2010ean 18 urte betetzen dituzten Buruntzaldeko gazte guztiek bidali zaie etxera, baina auto-eskoletan bertan ere aurki daiteke.

Esan behar da, gainera, gainerako herritarrei ere eskaintzen dietela Buruntzaldeko Udalek zozketan parte hartzeko aukera.


TEKNOLOGIA BERRIEI ESKER, ERA ERAKARGARRIAGOAN IKASI DEZAKETE PARTE TEORIKOA.

Auto-eskolara hurbildu eta galdetu. Ez galdu gidabaimena merkeago ateratzeko Buruntzaldeko udalek eskaintzen dizuten aukera.

## "Lagunek zail egingo zitzaidala uste zuten, baina erraza izan da"

**Goizane Oroz lasarteoriatarra lehenengoetarikoa izan da gidabaimeneko azterketa euskaraz egiten. Harekin bildu gara bere esperientzia ezagutzeko.**


GOIZANE OROZEK GIDA BAIMENA EUSKARAZ ATERA DU.

**Nola jakin zenuen gidabaimena euskaraz egiteko aukera zegoela?**

Lagun batek eman zidan aukera honen berri. Auto-eskolara hurbildu, aukera horri buruz galdetu eta informazio gehiago eman zidaten.

**Prestakuntza eta azterketa euskaraz egiten lehenetarikoa zinela esan al zizuten?**

Bai. Euskaraz egiteko animuak eman zizkidaten eta aurrerago zailtasunak edo ikusten banituen gaztelerara pasatzeko aukera nuela aipatu zidaten.

Eta euskaraz egitea aukeratu nuen.

**Nolako baliabideak izan dituzu azterketa prestatzeko?**

Euskarazko eskuliburua irakurtzen nuen, eta zalantzarik banuen galdetu eta azaltzen zidaten.

Gero, ordenagailuan ibiltzen nintzen, euskaraz jarri duten multimedia berrian galderak erantzuten, eta azterketarako prestatzen. Galdera pila dago. Galderak gaizki erantzunez gero, multimedia horretako botoi bat sakatu eta azalpenak ematen zizkidan, erantzuna egokia erakusten zidan, eta hurrengo galdera sortara.

**Zailtasunik izan al zenuen kontzeptuak ulertzeko?**

Hasieran, lagunek zail egingo zitzaidala uste zuten, baina erraza izan da. Ikastolan euskaraz ikasi dut.

Hala ere, euskaraz zein gaztelaniaz kotxeko hitz teknikoak zailak dira ulertzeko.

**Nola joan zen azterketa?**

Oso urduri nengoen, baina lehenengoan atera nuen. Gainera, egun horretan bakarra nintzen euskaraz egiten eta horregatik, azkena sartu nintzen.


Orain
SEMAFORO BERDEA!!
AZTERKETA TEORIKO BATEN ZOZKETA
AUTO-ESKOLA BAKOITZEKO
(Azterketa teoriko bat, gehienez 400 euro)
gidabaimena
EUSKARAZ
AZKEN TEKNOLOGIAN
MURGILDUTA
IRUDIEKIN JOLASEAN
BURUNTZALDEAN NON:
Andoain
BENGOETXEA Juan Bautista Erro 943 59 44 06
MENDI Agustin de Leitza 11 943 30 06 04
Astigarraga
OTAMENDI Pelotari 6 943 33 32 11
Hernani
HERNANI Latsunbe 3 943 55 05 34
Urbieta 7 943 55 34 16
LAGUNAK Karobieta 1 943 33 14 19
OTAMENDI Izpizua 1 943 55 35 46
Lasarte-Oria
IZARRA Geltoki 11 943 37 70 05
LASARTE Nagusia 6 943 37 06 92
MUGICA Ganbo 1 943 36 22 75
Urnieta
SOLOZABAL Idiazabal 24 943 33 41 69
Usurbil
SOLOZABAL Irazu 2 943 37 69 36
EMAN BIDEA
HAUXE DUZU GIDABAIMENA
ATERATZEKO MODURIK
ERAKARGARRIENA!!!
gidabaimena
EUSKARAZ
DAKIZUNA ERABILI EZ DAKIZUNA IKASTEKO!
www.buruntzaldea.org
Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo
Udaletako Euskarako Batzordeak

# Piraguismoan mundial dabiltza Garazi Iturralde eta Xabier Olano gazteak

**Gustuko jarduera bat egin, paisaia ikusgarriez gozatu edota bidaiatzeko aukera eskaintzen die piraguismoak Garazi Iturralde eta Xabier Olano herriko gazteei. Eta baita emaitza bikainak lortzea ere. Hilabete hasieran Mundakan eta Bakion jokatu zen Munduko Kopa Txapelketa horren adibide argia da. Finaleraino ailegatu ziren, izen handiko kirolariak atzean utziz. Hasiera baino ez da halere, udako oporraldia txapelketez josia datorkie eta.**



ASTEAN BOST ENTRENAMENDU SAIO BURUTZEN DITUZTE.

**NOAUA! Nola hurbildu zineten piraguismoaren mundura?**

**Xabier Olano.** Ikastaro bat egin nuen, proba moduan. Bide horretatik sartu nintzen taldean. Gustatu zitzaidan, besteak beste, bidaiatzen hasi ginenean.

**Garazi Iturralde.** Festetan Santuenean antolatzen diren ikastaroetan hasi nintzen. Gerora, Donostian ikastaro bat egin nuen udan eta jada zuzenean taldera sartu nintzen. Donostiako Nautiko taldean gabiltza.

> GARAZI ITURRALDE
>
> “Ekainean, Europa mailako txapelketan eta Bakion ditugu hitzorduak”

**N. Kayak, piraguismoa… Zer berezitasun ditu zuen kirol jarduerak?**

**X. O.** Gure klubean hainbat kirol sekzio daude; horietako bat piraguismoa da. Gu sekzio horretan gaude. Eta horren barruan bi modalitate praktikatzen ditugu; ibaiko estilo librea, eta kayak surfa.

**N. Halere, ibaian baino itsasoan gehiagotan aritzen zarete?**

**G. I.** Itsasoan entrenatzen dugu gehienbat. Gero, oso gutxitan baina joaten gara ibaira ere.

**X. O.** Urte garai batean, ibaiko txapelketa gehiago izaten dira.

**N. Eguraldiak edota itsasoaren egoerak, entrenamendu saioak ere baldintzatuko dizkizue. Nondik ibiltzen zarete?**

**G. I.** Kontxan, Zurriolan, Ondarretan… Astean bost entrenamendu saio burutzen ditugu. Orain, lau egunetan uretan aritzen gara eta saio batean maila fisikoa lantzen dugu. Neguan aldiz, bi saio izaten ditugu alor fisikoa lantzeko eta hiru uretan entrenatzeko.

**N. Denboraldia nola duzue antolatua?**

**X. O.** Gure denboraldia eskolarekin batera hasten da. Ibaiko txapelketak udaberrian hasten dira, eta amaiera ematen zaio uda hasieran. Urte osoan zehar, batez ere urte amaieran, azaroa eta abendu aldera, eta udan batez ere, kayak surfeko proba batzuk egiten dira. Txapelketen aldia, udaberritik hasi eta uda amaitu arte luzatzen da.

**N. Donostiara joan etorrian, ikasketak… Ahaleginduta ere, moldatzen al zarete dena egiteko?**

**G. I.** Donostian ikasten dut. Klaseak hiruretan bukatzen ditut. Liburutegira jaisten naiz edo bestela ikastera etxera. Baina ondo moldatzen naiz.

**X. O.** Unibertsitatean nabil. Badira garai batzuk libreago nagoena eta saiatzen naiz beti ahal dudan heinean, entrenamendu saioetara joaten. Baldintzak daudenean baita ibaira edo itsasora joaten neure kabuz. Badaude aldi batzuk ordea ezin dudala joan, azterketak eta lanak direla eta.

**N. Mundakako txapelketaren ondoren, zein hitzordu dituzue?**

**G. I.** Joan den asteburuan Murillon izan gara. Ekainean, Europa mailako txapelketa eta Bakion ditugu hitzorduak. Udan Portugalera goaz eta iraila aldera Zarautzen izango gara.

## Bakion eta Mundakan jokatutako Munduko Kopan, finaleraino

Garazi Iturralde eta Xabier Olano gazteek maila bikaina erakutsi zuten hilabete hasieran Bizkaiko kostaldean ospatu zen Munduko Kopa Txapelketan. Bakion eta Mundakan jokatu ziren norgehiagoketan, senior mailan biak finalera ailegatzea lortu zuten, Christopher Hobsonen gisako izen handiko kirolariak atzean utzita. Iturraldek gainera, garaile amaitu zuen. Pozik ziren bi gazteak, asteburua igaro ostean. “Orokorrean oso ondo joan zitzaigun asteburua, eguraldia hobeago izan zitekeen, olatuak bezala, baina txapelketa txukuna egin genuen usurbildarrok”, zioten NOAUA!ra igorritako oharrean.

# Ikasturte berrirako matrikulazioa ireki da Zumarte Musika Eskolan

**Zumarte Musika Eskolan 2010-2011 ikasturtean matrikulatzeko epea datorren astean zabalduko da. 4 urtetik aurrerako haurrek eman dezakete izena. Zumartekoak, gainera, urteurren ekitaldiak prestatzen dabiltza burubelarri. 25 urteotan eskainitako kontzertuak islatu asmoz, argazki bilduma bat osatu nahi dute. Urteurreneko egun handia, hala ere, ekainaren 12a izango da.**



SAN ESTEBANEN, DISKO BERRIRAKO GRABAZIOA EGITEN.

25. urteurrena askorako ematen ari da Zumarte Musika Eskolan. Ospakizunen harira, Zumarteko talde desberdinak disko bat grabatzen aritu dira. San Esteban elizan eta Sutegiko auditorioan egin zen grabazioa, eta Zumartetik adierazi digutenez, "esperientzia oso aberasgarria izan da eta ikasle-irakasleak gogor aritu dira lanean". CDa ekainerako argitaratu nahi dute. Ekainean izango da, hain zuzen, urteurreneko ekitaldi nagusia.

## Ekainaren 12an, Zumarteren urteurren festa

Lehen 25 urteak ospatuko ditu Zumarte Musika Eskolak datorren ekainaren 12an larunbata. Egitaraua hauxe:

**11:30ean kalejira:** Txistulari eta trikitilarien kalejira. Gaur egungo eta izandako ikasle-irakasleek hartuko dute parte kalejiran.

**22:00etan emanaldi mundiala!** Gaur egungo eta izandako ikasle-irakasleekin.

Egitaraua: Abesbatza, Txalapartariak, Triki-Pandero-Alboka Taldea, Talde instrumentala, Txistulariak, Dantzariak.

## 2010-2011 ikasturteko matrikulazioa

EGUNAK:
Maiatzak 31- Ekainak 4 bitarte.

ORDUTEGIA:
Goizez (egunero, astelehena ezik):
11:00etatik-13:00tara.
Arratsaldez (egunero):
16:30tatik 19:30tara.

INFORMAZIOA:
Kale Nagusia, 45 / 943 371 594.

IKASGAIAK:
Musika-Txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpeta, saxofoia, biolina, biola, perkusioa, klarinetea, abesbatza, eskusoinua, trikitixa, panderoa, alboka, pianoa, txistua, gitarra, flauta, talde instrumentalak.

GUTXIENEKO ADINA:
4 urte.

## Argazki bilduma

Ekainaren 12an egingo den ekitaldi nagusian, urte desberdinetan Zumartetik pasa diren ikasleek eskainitako kontzertu desberdinen argazki bilduma erakutsiko da. Arazorik ez izateko "bilduma horretan norbaitek bere argazkiren bat ateratzeko edozein eragozpen badu, mesedez ekainaren 4a baino lehen gurekin harremanetan jartzeko eskaera" azpimarratu dute Zumarte Musika Eskolakoek.





# Ikastolaren egunari lotutako ekitaldiak ospatzen hasi dira

**Datorren ekainaren 6an ospatuko da aurtengo Ikastola Eguna. Baina girotze moduan, ekitaldi sorta antolatu dute egunotarako; ikasleen kantu eta bertso emanaldiak, txokolate jana, bazkideen batzarra… Ekaineko lehen igandeko ospakizunek borobilduko dute egitaraua.**

Asteartean, HH5 eta LH5 mailetako ikasleek kantaldia eskaini zuten Sutegiko auditorioan. Eta asteazkenean, LH 5. eta 6. mailako ikasleek bertso saioa eskaini zuten ikastola berriko aretoan, Ahozkotasuna eta Bertsolaritza Proiektuaren barruan.

### MAIATZAK 27, OSTEGUNA

18:00 Udarregi ikastolako bazkideen ohiko batzarra, ikastola berriko aretoan.

### MAIATZAK 31, ASTELEHENA

15:00 DBH-ko ikasleen bertso saioa, ikastola berriko areotan. Gonbidatuak: Amets Arzallus eta Uxue Alberdi.

### EKAINAK 1, ASTEARTEA

17:30 Jardunaldia, ikastola berriko aretoan: "Ikastoletako eleaniztasun proiektua eta ikastolan lantzen ditugun hizkuntzen trataera".

### EKAINAK 2, ASTEAZKENA

17:30 Bideo emanaldiak, ikastola berriko musika gelan: "Ikastolak Lau Haizetara" eta "Ikastolako 2010eko Inauteriak".

### EKAINAK 4, OSTIRALA

16:30 Filma Sutegiko auditorioan, LH-ko ikasleentzat: "Katua eta Antxeta". Iraupena: 75 minutu. Oharra: haurrak bakarrik sartuko dira aretora. Behin filma hasita, ezingo da inor aretora sartu.

Ondoren, txokolate jana Askatasuna plazan, Udarregi ikastolako Hitz Aho guraso elkartearen eskutik.



IKASTOLAREN EGUNA EKAINAREN 6AN OSPATUKO DUTE.

### EKAINAK 6, IGANDEA

**9:30** Txistularien esnadeia.

**9:00-11:30** LH eta DBH-ko ikasleen jokoak.

**10:00-13:00** LH eta DBHko ikasleen eskulan eta teknologia lanen erakusketa ikastola berrian.

**12:00-12:45** HHko haurren jaialdia Oiardo Kiroldegian: "Gu ere bai".

**14:30** Herri bazkaria frontoian.

**Bazkal ondorengo girotzea,** DBHko ikasleen eta gurasoen eskutik.

# Hizki zopa

**Kaixo!! LH2ko ikasleak gara. Erleei buruzko hizki zopa honetan, ea aurkitzen dituzuen azpian azaltzen diren hitzak. Animo!!**

ABARASKA
ARGIZARIA
ERLAUNTZA
ERLAZAINA
EZTENA
EZTIA
GELASKAK
LORATU
NEKTARE

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| O | G | E | L | A | S | K | A | K | I |
| A | A | Z | T | N | U | A | L | R | E |
| N | A | V | V | E | P | X | Y | X | X |
| I | P | O | R | O | Y | L | K | J | X |
| A | V | A | I | T | Z | E | Y | Z | I |
| Z | A | I | R | A | Z | I | G | R | A |
| A | P | T | H | L | O | R | A | T | U |
| L | E | R | A | T | K | E | N | Z | L |
| R | F | A | K | S | A | R | A | B | A |
| E | A | Q | A | N | E | T | Z | E | A |

# Asteburu honetan, Usurbil Cupen bigarren jardunaldia jokatuko da

**Eguzkipean hasi zen Usurbil Cup txapelketa maiatzaren 21ean. Lehen jardunaldiko lehen neurketak Oiardo Kiroldegian jokatu ziren. Giro ederrean, eta lagun ugari bertaratu zen neurketak ikustera. Asteburu honetan jokatuko da bigarren jardunaldia.**

Herriko minibenjamin, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako 321 neska-mutil Usurbil Cup txapelketan murgilduak daude, joan den asteburuaz geroztik.

Lehen jardunaldiari zegozkion hamazazpi neurketa burutu dira, eta eguraldiak ez du neurketa bakar bat ere lekuz aldatzera behartu. Baina hau hasi besterik ez da egin. Datozen asteotan, etengabeak izango dira txapelketari lotutako jardunaldiak. Pare bat, astetartean ere jokatuko dira, gaztetxoek ekainean arratsaldez klaserik ez dutela baliatuta.

## Finalak, ekaina bukaeran

Bigarren jardunaldia berriz, ostiral arratsalde eta larunbat goizean jokatuko da, herriko hiru guneetan; frontoian, Udarregi ikastolako patioan eta Oiardo Kiroldegi kanpoko zelaian.

Talde bakoitzeko lehen lau sailkatuek finalerdiak jokatu ostean, finalak ekaineko azken asteburuan jokatzea aurreikusten dute antolatzaileek.

## Maiatzak 28 ostirala

**Minibenjamin mailan, frontoian:**
18:00 Koide-Josue Igeltseritza.
18:50 Bruño Mariskoak-Indargorri.
19:40 Arantxa Akademia-Araeta Jatetxea.



GIRO EDERRAK LAGUNDUTA HASI ZEN USURBIL CUP, JOAN DEN ASTEBURUAN.

**Benjamin mailan, kiroldegian:**
17:30 Blai-Ines Ileapaindegia.
18:20 Intza Ileapaindegia-Lizardi.
19:10 Zendoia-Laurok.
20:00 Bordatxo Taldea-Kaxkamelak.

**Alebin mailan, Udarregi ikastolan:**
17:30 Txiriboga Keler-Aialde Berri.
18:20 Elexpe Ileapaindegia-Pauma.
19:10 Dorleta-Saizar Sagardotegia.
20:00 Borobiltxo-Ardi Beltza.

## Maiatzak 29 larunbata

**Infantil mailan, Kiroldegian:**
10:00 Pitifituplautikoak-Pasaian!.
10:50 Florentniños-Kongitos.
11:40 Bordatxo-Loli Pop.
Atsedena: Nik ez!.

**Kadete mailan, Udarregi ikastolan:**
10:00 Inprimittu-Saizar.
10:50 Kunprittu-Zendoia.
11:40 Team-Ainhoa Sanchez Pro.
**Antolatzailea:** Usurbil FT.

## Udako kirol eskaintza Oiardo Kiroldegian

Igerilekuan helduentzat hastapen eta hobekuntza ikastaroak antolatu dira uztailaren 1etik 23ra. Baita, mantentze gimnasia, pilates, aerobik, edota spinning ikastaroak ere. 8-12 urte arteko gazteentzat, Kirolarekin Jolasean saioak uztailaren 5etik 23ra. Hainbat kirol jarduera egiteko aukera izango dute parte hartzaileek. Taldea gehienez 15 lagunekin eta gutxienez 8 lagunekin osatuko da. Prezioa: 85 euro. Igerilekuan ere ikastaroak antolatu dira haurtxoei edota 3-7 urte artekoei zuzenduta. Udako kirol eskaintzan izen emateko epea ekainaren 7tik 21era luzatuko da. Informazio gehiago: kiroldegian, 943372498 edo kirolpat@usurbil.net.

### PALA TXAPELKETAKO HIRUGARREN JARDUNALDIA

**MAIATZAK 30 IGANDEA USURBIL**
**17:30etik aurrera**
Oidui Usabiaga – Mikel Aranburu
Jon Arruti – Xabier Murua

Esteban Roteta – Gorka Astiazaran
Iban Arruti – Josu Ostolaza

Mikel Ibarreta – Jon Olaizola
Josu Arruti – Jokin Zubiaur

Jon Larrañga – Juanjo Lertxundi
Igor Alkorta – Josu Errekondo

**2. jardunaldiko emaitzak** (maiatzak 22)
Imanol Esnaola – Haritz Zubiaur 25
Eneko Harreguy – Iban Maritxalar 16

Igor Alkorta – Josu Errekondo 25
Josu Arruti – Jokin Zubiaur 18

Jon Arruti – Xabier Murua 15
Unai Loidi – Eneko Arregi 25









## Agenda !!

**Maiatzak 27 osteguna**
Miriam Mendoza ipuin kontalaria, 18:00etan udal liburutegian. 5 urteko umeentzat.

**Maiatzak 28 ostirala**
Joseba Tapia, 22:30ean Sutegin. Sarrerak aldez aurretik 6 eurotan NOAUA!n eta Txiribogan. Egunean bertan, 8 euro (NOAUA!ko bazkideek 5 euro baina aldez aurretik erosiz gero).

**Maiatzak 29 larunbata**
- Bertso-kantujira-afaria. 19:00etan frontoitik irteera.

### Goardiako farmaziak

**Maiatzak 27, osteguna**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Maiatzak 28, ostirala**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Maiatzak 29, larunbata**
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Maiatzak 30, igandea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Maiatzak 31, astelehena**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Ekainak 1, asteartea**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Ekainak 2, asteazkena**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Ekainak 3, osteguna**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Ekainak 4, ostirala**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Ekainak 5, larunbata**
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Ekainak 6, igandea**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

*GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ*
*Chucla farmazia (22:00-09:00),*
*Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)*
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

# Gipuzkoako Kopa, jubenilen futbol taldearen eskura

**Amaitzear den 2009-2010 denboraldiko helburu nagusia bete dezake asteburuan, Usurbil FT-ko jubenilen taldeak; Gipuzkoako Kopa irabaztea. Finala jokatuko dute Donostian, Añorgaren aurka.**

Larunbat honetan, maiatzak 29, Gipuzkoako Kopa irabaz dezake Usurbil FT-ko jubenilen taldeak. Egun horretan final handia jokatzeko sailkatu dira. Aurrez aurre, Añorgako taldea izango dute usurbildarrek. Eskura dute, denboraldiko euren erronka nagusia izan dena betetzea.


KOPAKO FINALA JOKATUKO DU JUBENILEN TALDEAK, LARUNBAT ARRATSALDEAN DONOSTIAN.

Final handia, aipatu moduan, larunbat honetan, maiatzak 29 jokatuko da. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da neurketa, Donostiako Puyo zelaian.

## Saltxipin birentzat afaria irabazi du



Eskubaloiko errifa zozketan Miren Alkain izan da saritua. 5.483 zenbakiari esker, bi lagunentzako afaria egokitu zaio Saltxipi jatetxean. Eskubaloi elkartetik zozketan parte hartzen duten guztiak eskertu nahi dituzte.

## Lasarteko Institutuko tituluak, eskuragarri

Lasarte-Oriako Batxiler Institutuak jakinarazi nahi du pasa den ikasturteko ikasleek titulua eskuragarri dutela Institutuko idazkaritzan.

## Usurbilgo Pilota Txapelketa

**MAIATZAK 29 LARUNBATA**
**USURBILEN, GOIZEKO 10:30EAN**
***Azken-zortzirenak***

**Jubenilak**
Oronoz-Lasa - Lopez-Iraizoz
(Baztan) (Zizur)

**Nagusiak**
Andueza-Kastillo - Azpiri-K.Galarraga
(Azkoitia) (Bidegoien)

Vicente-Perez - Errasti-Aranalde
(Gasteiz) (Usurbil)

**MAIATZAK 30 IGANDEA**
**AGINAGAN, GOIZEKO 10:30EAN**
***Azken zortzirenak***

**Jubenilak**
Etxaniz-Aizpuru - Zinkunegi-Gesalaga
(Azpeitia) (Usurbil)

Mujika-Arratibel - Lujanbio-Elorza
(Bidegoien) (Hernani)

**Nagusiak**
Arribillaga-Loiola - Flores-R. Larramendi
(Elgoibar) (Urbasa)







### ETXEBIZITZA

- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Pisu bat alokatuko nuke, 3 logelakoa eta amueblatua. 646 086 109.
- Gizonezko langile edo jubilatu batentzat gela bat alokatzen da Usurbilgo kaxkoan prezio eta baldintza onetan. 687348223 edo 943364310.
- Logela bat alokatuko nuke edo konpartitzeko etxe batean sartuko nintzateke alokairuan. Nire telefono zenbakia: 648 005 159.
- Etxe bat alokatzen da Santuenean. 943 366 039.
- Usurbilgo Kaxkoan berritutako eta amueblatutako etxe bat alokatzen da. 3 logela, sukaldea, komuna, trasteroa eta bi terraza ditu. Eguzkitsua. 616064059
- Apartamendu edo logela bat alokatuko genukeen bikote bat gara. 677866495
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan. 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tf: 686 969 112.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu.Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gauetan).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 638279184.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santuenea 26an 60metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Txaramunto auzoan garaje itxi bat alokatzen da 80 eurotan, Interesatuak deitu: 667715075.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalen. 6471202 53.
- Zazpi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004 urtekoa da eta 118.000 km dauzka, ondo zaindua, beti garajean egondakoa. 669353942.
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta altilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terrenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. 943361265.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

### LANPOSTUAK

**Lan-eskaerak**

- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

**Lan-eskaintzak**

- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltzeritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, arratsaldez, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. Telefono zenbakia: 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osorako. Lanean berehala hasteko prest: 622 065 461 (Alex).
- Neska bat, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Astebukaeratan edo astean zehar goizeko 10:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egingo nuke. Interesatuak deitu 618410123
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874
- 1,35 metroko ohe artikulatu berri bat daukat salgai 450 eurotan. 688803528.
- Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatoan. 635729637
- 160 luzera x 30 zabalera x 77 altuerako kaoba koloreko komoda bat daukat prezio onean salgai. 636540788
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkiak, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.



**Zorionak Nahikari!** Ekainaren 1ean 6 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta muxu handi bat etxekoen partez!



**Zorionak Oier!** Maiatzaren 20an zure 5. urtebetetzea izan zen. Oso goxoa zegoen tarta! Mila esker eta muxu bat Aginagako lagunen partez.

### HILDAKOAK

**Bittori Ezkerra Pascual**
Maiatzaren 18an hil zen 79 urterekin.



Jaiotzak, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasoak. Zorion-agurrak, hildakoak, oharrak... NOAUA!ra ekartzeko azken eguna: asteartea, eguerdiko 12:00etan. E-postaz: erredakzioa@noaua.com

**Gipuzkoa**




# Krisiaren aurkako 2010 Plana

## 100 milioi euro

**Gipuzkoan badugu Plana:**

Inbertsio publikoa azkartzea, enplegua sortzea eta gure enpresei laguntzea, berrikuntzaren aldeko apustu irmoa dela medio.

GIPUZKOA
zurekin, aurrera

# Edertu zaitez!
















